

BERRI OROKORRAK

2025eko urtarrilaren 31n 18. zenbakia

2025/2026 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 3tik 14ra (biak barne) izango dela 2025-2026 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula-eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz edo 943361216 telefonora deituz.



HAUR HEZKUNTZA

2025/2026 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da otsailaren 3tik 14ra (biak barne) izango dela 2025-2026 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurrematrikulatzeko epea. Matrikula-eskaera egiteko hitzordua hartu beharko da usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz edo 943361216 telefonora deituz.

Bestetik, jakinarazten da, 2023, 2024 eta 2025 urtean jaio direnen eta jaioko diren haurren matrikulazioa aurrerago egingo dela, ohi bezala, Haur Eskolan.



Baso-eskola

Datorren astean, **otsailak 4, HH3-ko ikasleak ez dugu baso eskolako saiorik** egingo.



Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu, beraz, **falta zaretenak makila ekarri**, entseguekin hasi baikara.

Egunean bertan, arratsaldean, haurrek baserritarrez jantzita etorri behar dute. Jangelako haurrak guk jantziko ditugu. Haur kopurua handia dela ikusirik, eta berokiekin joango garela aurrikusirik, eskertuko genizueke azpitik arropa hauekin jantzita etortzea guri lana errazteko:



Neskak: mailak eta jertse bat

Mutilak: galtza bakero edo galtza urdinak.

Gainetik, gona, berokia eta lepoan zapia jantziko dizkiegu eta nahikoa izango da (alegia ez dela gerritik gorako blusa, ator edo kaikurik behar izango).

Arratsaldean ateri egingo balu, herriko frontoian abestuko genuke LH-koekin batera 16:00ak aldera.

Gogoratu haurrak frontoian bertan jaso behar dituzuela. Euriarekin, ikastolako frontoian abestuko genuke 16:10ean.

Gurasoek beren haurrak Ikastolatik jasotzeko irizpideak

HHko ikasleen kasuan, heldu batek edo LH4tik gorako adina duen anaia edo arrebak jaso dezake. Guraso edo anai-arrebak jaso ezin duenean ikaslea, gurasoak beste heldu bati bere haurra jasotzeko eskatuko dio eta tutoreari adieraziko dio (emailez edo, presakoa bada, telefonoz idazkaritzara deituta).

LHko ikasleei dagokioenez, LH3koak, gurasoen baimen idatziarekin bakarrik joan daitezke etxera. LH4tik gorako ikasleak bakarrik joan daitezke.



LH1 eta LH2ko ikasleen kasuan, HHko irizpide bera mantenduko da; heldu batekin edo LH4tik gorako anai-arrebekin joan daitezke ikasleak etxera. Guraso edo anai-arrebak jaso ezin duenean ikaslea, gurasoek beste heldu bati bere haurra jasotzeko eskatuko diote eta tutoreari adieraziko diote (emailez edo presakoa bada telefonoz idazkaritzara deituta).

Agerialdeko patioarako komuna (arratsaldez)

Ageri aldeko patioan arratsaldetan geratzen direnentzat komun bat erabilgarri jarriko da 16:30 eta 17:30 artean. HH3ko gelaren parean dagoen irakasleen komuna izango da erabilgarria.



Orientazio proba

Otsailaren 9an Usurbilen ORIENTAZIO PROBA/JOLASA egingo da. Kanpo-espazio taldetik eta Zirimara nahiz Eskola Kiroletik **TOPAKETA/ FAMILIA PLAN** moduan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.



Aurrez izena eman behar da.

Lehenengo aldiz edo familian egiteko **ibilbide horia** aukeratzea komeni da. Talde bakoitzean **heldu batek**, gutxienez, izena eman behar du, ezin dira haurrak bakarrik inskribitu. Izena ematerakoan taldeko 7 € + partehartzaile bakoitzeko 2€ (lasterketako segurua) ordaindu behar dira. Gehienez 7 pertsonako taldeak dira.

Probaren egunean **hasiera tartea 10:00-12:00** bitartean da. Taldeak minutu 1 edo 2ko tartearekin aterako dira (nahi izanez gero, irten ondoren elkarrekin egin dezakete ibilbidea). Usurbildik barrena ibiliko dira ibilbidea egiten. Ez da trafikorik moztuko, horregatik, garrantzitsua da heldu bat joatea talde bakoitzarekin.

Otsailaren 6an 22:00etan bukatuko da izena emateko **epea**.

Izen-ematea egiteko lotura eta informazio guztia hemen dago ikusgai:
<https://gotorientazioa.org/gol-2025-usurbil-2025ko-otsailak-9/>

Animatu parte hartzera!!

Azalerako ipuinak

Otsailaren 5ean, asteazkenarekin, 17:30ean, Usurbilgo Sutegi Liburutegian, AZALERAKO IPUINAK, Saroa Bikandiren eskutik. Saioa 0-3 urteko haurrei eta euren guraso edo/eta zaintzaileei zuzenduta dago. Plaza mugatuak direnez, izena eman behar da Liburutegian bertan. Iraupena: 45 minutu inguru.



LEHEN HEZKUNTZA

Gurasoek beren haurrak Ikastolatik jasotzeko irizpideak:

LH3ko ikasleak, gurasoen baimen idatziarekin bakarrik joan daitezke etxera. LH4tik gorako ikasleak bakarrik joateko aukera dute.

LH1 eta LH2ko ikasleen kasuan HHko irizpide bera mantenduko da; heldu batekin edo LH4tik gorako anai-arrebekin joan daitezke ikasleak etxera. Guraso edo anai-arrebak jaso ezin duenean ikaslea, gurasoek beste heldu bati bere haurra jasotzeko eskatuko diote eta tutoreari adieraziko diote (emailez edo presakoa bada telefonoz idazkaritzara deituta).



Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4ean, asteartea, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu. Arratsaldean, haurrak baserritarrez jantzita etorri behar dute eta makilak ekarri behar dituzte.

Arratsaldeko 16:00etan frontoian elkartuko gara arratsaldeari bukaera emateko, denok elkarrekin abesteko.

Ikasleak frontoian bertan jaso behar dituzue.



III Xake topaketa

Gaur, 17:30etatik 19:00etara, **III XAKE TOPAKETA** Sutegi Liburutegian. Saioa 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzendua dago (LH5etik gora), eta bertan parte hartzeko, xakean jolasten jakin behar da. Partaide guztiek elkarren aurka jokatu dute. Irakaslea: Breogan Estévez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen ematea: Sutegi Liburutegian.



Usurbilgo Udala

Orientazio proba

Otsailaren 9an Usurbilen ORIENTAZIO PROBA/JOLASA egingo da. Kanpo-espazio taldetik eta Zirimara nahiz Eskola Kiroletik **TOPAKETA/ FAMILIA PLAN** moduan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.



Aurrez izena eman behar da.

Lehenengo aldiz edo familian egiteko **ibilbide horia** aukeratzea komeni da. Talde bakoitzean **heldu batek**, gutxienez, izena eman behar du, ezin dira haurrak bakarrik inskribitu. Izena ematerakoan taldeko 7 € + partehartzaile bakoitzeko 2€ (lasterketako segurua) ordaindu behar dira. Gehienez 7 pertsonako taldeak dira.

Probaren egunean **hasiera tartea 10:00-12:00** bitartean da. Taldeak minutu 1 edo 2ko tartearekin aterako dira (nahi izanez gero, irten ondoren elkarrekin egin dezakete ibilbidea). Usurbildik barrena ibiliko dira ibilbidea egiten. Ez da trafikorik moztuko, horregatik, garrantzitsua da heldu bat joatea talde bakoitzarekin.

Otsailaren 6an 22:00ean bukatuko da izena emateko **epea**.

Izen-ematea egiteko lotura eta informazio guztia hemen dago ikusgai:
<https://gotorientazioa.org/gol-2025-usurbil-2025ko-otsailak-9/>

Animatu parte hartzera!!

DBH

Irteera kobrantza

Datorren astean, **DBH 1**eko KURTSO AMAIERAKO IRTEERAREN bigarren KOBARRANTZA burutuko da kontu korrente bidez, **30 €**.

Azken kobrantza irteera eguna gerturatzean burutuko da, kopuru zehatzarekin.



Chromebook-a gelan uzteko aukera

Otsailaren 3tik aurrera, DBH1. mailako ikasleek (DBH2-ko ikasleek aurrerago), chromebook-a gelan uzteko aukera izango dute klaseak amaitzen direnean. Bestalde, gurasoekin dokumentu bat partekatuko da etxeko lanak egiteko gailua noiz behar duten jakinarazteko.



Nahiz eta giltzapeko armairuetan gorde ordenagailuak, erantzule bakarra familia izango da, Ikastola ez da Chromebooken erantzule egingo.

Hona hemen [chromebook-a gelan uzteko araudia](#).

Orientazio proba

Otsailaren 9an Usurbilen ORIENTAZIO PROBA/JOLASA egingo da. Kanpo-espazio taldetik eta Zirimara nahiz Eskola Kiroletik **gazteak** bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.



3 ibilbide daude aukeran:

Horia: Hasiberrientzat eta familientzat.

Laranja: Ez gorria bezain teknikoa, baina orientatzeko ezagutzak eduki beharko dira.

Gorria: Teknikoa da eta sasoi onean egotea eskatuko du.

Bakarka nahiz taldean har daiteke parte. Lehen aldia bada, taldean parte hartzea gomendatzen dugu.

Izena ematerakoan taldeko 7€ + partehartzaile bakoitzeko 2€ (lasterketako seguruak) ordaindu behar dira. Gehienez 7 pertsonako taldeak egin daitezke, baina gehienez 5 pertsonako taldeak egitea gomendatzen dugu.

Probaren egunean **hasiera tartea 10:00-12:00** bitartean da. Taldeak minutu 1 edo 2ko tartearekin aterako dira eta Usurbildik barrena ibiliko dira ibilbidea egiten. Ez da trafikorik moztuko, horregatik, erne ibiltzea komeni da.

Otsailaren 6an 22:00etan bukatuko da izena emateko **epea**.

Izen-ematea egiteko lotura eta informazio guztia hemen dago ikusgai:
<https://gotorientazioa.org/gol-2025-usurbil-2025ko-otsailak-9/>

Animatu parte hartzera!!

III Xake topaketa

Gaur, 17:30etik 19:00etara, III XAKE TOPAKETA Sutegi Liburutegian. Saioa 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzenduta dago (LH5etik gora), eta bertan parte hartzeko, xakean jolasten jakin behar da. Partaide guztiek elkarren aurka jokatuko dute. Irakaslea: Breogan Estévez, Sutegi liburutegiko liburuzain-laguntzailea eta Xake jokalaria. Izen-ematea: Sutegi Liburutegian.



Usurbilgo Udala